

Aurreko LABEANen esaten genuen bezala, azaroan TRGko eredu sindikala aldatzeko aukera izango zela esan genuen, ba iritsi da ordua.

Lau urte atzera egingo dugu eta LABek aurreko hauteskunde-kanpainan markatu zituen gure erronkei begirada bat botako diogu:

- **BEHIN BEHINEKOTASUNA:** behin-behineko langileentzako 2012.urtean kendu zitzairen bermea eskatzen genuen, finko egiteko “ahal den neurrian” esaldi famatuarekin. Bada, erronka gaindituta eta soberan. LABek borroka egin du eta eskatu du 2010ean, 2011n eta 2012an enpresan lehen kontratuak zituzten behin-behineko langileen egoera konpondu arte ez genuela hitzarmenaren negoziazioarekin jarraituko. Eta horrela izan da. Pertsona horiek kontratu finko horiek sinatu dituzte, nahi genukeena baino askoz beranduago. Horregatik barkamena eskatzen dugu, nahiz eta LAB erruduna ez izan, ezta egoeraren laguntzailea ere ez (nahiz eta sindikatu nagusiak baietz esan duen, oraindik zuzenketaren zain gaude). Halaber, lortu dugu 2014. urtean lehen kontratuak dituzten behin-behineko langileen taldea, beranduenez ere, finkoak izatea hitzarmen hau bukatzean. Poltsa horietako behin-behineko langileek eta beste sindikatueta afiliatutakoek zorionak eman dizkigute erakutsitako desinteresagatik.
- **TXANDA KONTRATUA:** behin eta berriz eskatzen genuen Tubos enpresan lan gehien egin dutenek berme bat izan behar zutela aurre-erretiroa hartzeko eta hau gure eskaeretan egon den zerbait izan da. ERTE COVIDen negoziazio zailetan asko azpimarratzen genuen hori, eta adinekoak arrisku-guneetatik kentzeko eskatzen genuen txanda kontratuaren figurarekin (garai hartan saltzen zigutena). Ba ez genuen lortu, Batzordean gehiengorik ez zegoelako ezta TRGZk errelebo-kontratua aplikatu nahi ez zuelako. TRGZrena geroago ulertu genuen (Bastegieta poltsikoa diruz beteta eramateko), Batzordearen gehiengoaren erabakia oraindik ez dugu ulertzen. Errelebo kontratua

abian da, eta erreleboa hartzen dutenak ANTZINATASUN HURRENKERARI hertsiki jarraituz sartuko dira. Espero dezagun manufaktura-enpresaren figura luzatzea.

- **HITZARMEN KOLEKTIBOA:** orain 4 urteko erronkak hauek ziren:
 - Egun libreak zituzten egutegiak: urte batzuetan, egutegiak egun librerik gabe zeuden, eta horrek arazo ugari sortzen zituen. Negoziazio honetan lortu dugu egutegiak 3 egun eta sistemak edo letrak utziz gero 5 egun izatea gutxienez. Egun horietan bi pertsonak atal bakoitzean gozatzeko aukera izatea ere lortu dugu, lehen bi zeuden departamentuka (horrek ere arazo asko sortzen zituen plantillaren artean).
 - Txanda kontratua: lortuta dago. Tamalgarria da aurretik lortu ez izatea, TRGZk sustatu zuen kaleratze objektibo bakoitzeko ordeko bat izango genuelako.
 - Behin behinenkoentzako bermea: 2010, 2011 eta 2012. urteetako aldi baterako langileei kontratu finkoak egitea lortu dugu (22 pertsona izan dira eta hauek denbora asko daramate prekarietatea eta segurtasunik eza jasaten), eta gainerakoak txandaka sartzea, lehenengo kontratuaren daten arabera. 2014. urtean lehen kontratuak dituzten 26 lagunentzako bermea ere lortu dugu.
 - Ordaindutako lizentziak: 8 ordu lortu ditugu mendekotasuna duten senideei kontsulta medikoetara laguntzeko (beste arazo bat, plantillak mahai gainean jartzen zuena). Lan egindako gau bakoitzeko denbora metatzea (gutxi dirudi kontrako kanpaina izan den bezalakoa izanda, baina hurrengo negoziatioetan denbora hori handitzeko aukera izango dugu. Orain arte ez zen inoiz lortu, nahiz eta negoziatioetako plataforma guztietan egon). Zortzi ordu metatzea, BORONDATEZKO mugikortasun-hitzarmen bati atxikitzeagatik. Lehen, langile gehienek horren truke ez zuten ezer jasotzen.
 - Hobekuntza ekonomikoak: puntu honetan KPIen eguneratzeaz hitz egiten genuen, eta hala egin dugu. Atzerapenetako urteetan erosteko ahalmena ez galtzeko eta hitzarmenaren urte guztietarako erosteko ahalmen hori bera bermatzeko borrokatu gara eta baita lortu ere. % 1 ospetsua berreskuratzeaz ere hitz egin dugu, eta ez da posible izan. Hemen autokritika egiten dugu ez lortzeagatik. Baina gehiago batzuek kontrakoa esaten dutenean, eutsi egin behar diogu eta errespetatu egin behar dugu. ESKk eta ELAk Batzordearen plataformatik kentzearen aldeko botoa eman zuten, UGTk eta

CCOOk abstenitu egin ziren eta LABen 4 botoak besterik ez ditugu izan kobratzearen alde.

- Formakuntza lan denbora bezala hartzea: hemen ere puntu negatiboa jarri behar dugu, baina, %1 famatuarekin bezala, gehiengoak errespetatu behar ditugu. LABek proposatuta, 2022-12-15ean plataforman mantentzeko bozketa egin zen, ELA eta ESKren aurkako botoekin; beraz, negoziazioan jarraitzen zuen. 2022-12-21ean beste bilera bat egin ondoren, eta orain ere UGT eta CCOOren aurkako botoekin, negoziatziotik kendu behar izan genuen, LABen 4 botoak ez bait ziren nahikoak. Hori orain kontatuko dugu, blogen batean irakurri dugulako sartu egin behar zela, Eusko Jaurlaritzaren gomendioa baitzen. Norbaitek bere lana garaiz eta behar bezala egingo balu, gauzak aterako lirateke, baina... Hurrengo negoziatziarako utzi beharko dugu. Portzieto, hitzarmena ALHAOn agitaratuta dago inolako arazorik gabe.

Hitzarmen honetan, aurreko kanpainan aipatu ez ditugun beste gauza batzuk ere lortu ditugu, hala nola eguneko lan-sistamarako ordutegi-malgutasuna, hilabeteko eszedentziak hartzeko aukera, norberaren aukerako egunak agortzen direnean beharrezkoak izango diren ordaindu gabeko lizentziak, seme-alabak lanaldi osoetan zaintzeko murrizketak hartzeko aukera...

Azken 3 hitzarmenak alderatuz, uste dugu onena dela, eta horrela pentsatzen dugu, negoziatziara lau urte hauetan plantillak galdetu edo transmititu dizkigun zalantza eta arazoetan oinarrituta bideratu delako. Zalantza eta arazo horietako gehienak honako hauetan oinarritzen ziren: senideek medikuari laguntzeko lizentziarik ez izatea, norberak hartzeko egunik ez izatea, orduak malgutzea horretarako aukera ematen duten sistemetan... Oso erraza da oposizioan jartzea eta asmoak igotzen joatea, bilera batetik bestera herrikoiagoa bihurtuz "norgehiagoka" bilatzeko helburu bakarrarekin, baina mahai gainean gehiengo soila duen proposamen bat dagoenean, "norgehiagoka" horrekin, baztertu egiten da.

- **KOLEKTIBITATEA**: Langile guztien alde eta haientzat lan egitea proposatu genuen, eta hala egin dugu, uste baitugu lan eskubideak langileenak direla eta ez afiliatziorenak. Hala eta guztiz ere, tontokeriak entzun behar izan ditugu kontrako noranzkoan (adibidez, ordezkari bati ezgaitasun bat lortu diogula edo lanpostuz igo garela...

Aurreko kanpainan baita KONPROMEZU batzuk hartu genituen eta bete ditugulakoan gaude:

- **ZINTZOTASUNA:** Modu argi eta gardenean lan egin dugu, norberaren onura lortzeko “tratuetan” ibili barik, gaur egun frogatu daitekeen bezala, nahiz eta norbaitek “TRGZrekin hotelean sartzen ikusi gaituen”.
- **KOHERENTZIA:** Guztion aurrean garena defendatu dugu, eta langile guztiak defendatzeko estrategia koherentea izan dugu. Publikoki azaldu ditugu egin ditugun mugimendu guztiak, eta beti azaldu izan dugu gure botoaren zentzua bileretan eta komunikatzeko erabiltzen ditugun baliabideetan, hala nola blogean, LABEAN honetan eta beste komunikatu batzuetan.
- **LAN GAITASUNA:** Enpresan bertan zein kanpoan, arlo guztietan jakin izan duguna eman dugu. Zalantzak eta arazoak helarazi dizkiguten guztiei entzun diegu, eta gure aukeren barruan konpondu ditugu, afiliatuta egon ala ez, eta horrela jarraituko dugu egiten. Gure elkartasuna adierazi diegu arazoak dituzten inguruko enpresetako lankideei, eta horrela jarraituko dugu egiten, batasuna baita borrokarako armarik onena.

Hemen kontatutakoa legealdi oso zaileko lau urte hauen laburpen txiki bat izan liteke, non eztabaida handienak Enpresa Batzordean izan baititugu (eztabaidatzeko aukera ematen zenean, gehienetan botoaren zentzua ematen baitzen inolako azalpenik eman gabe eta LABek planteatzen zituen zalantzak lehenago erantzun gabe). Izen ona kentzeko bideoak eta dokumentu faltsuak bota dira legealdi honetan.

Hurrengo lau urteetan hori guztia aldatu ahal izatea espero dugu, eta horretarako aukera bikaina dugu hauteskunde hauetan, non langileen hurrengo 4 urteetarako ordezkariak aukeratuko dira, harremanak normalizatu eta enpresa fiskalizatu beharko dituztenak.